

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 2012an erretiratutako edo hildako 603 funtzionario eta enplegatu publikoak omendu ditu

*Barcina Lehendakariak eskerrak eman dizkie “egindako lan profesional miresgarriagatik” eta Nafarroaren aurrerabidean nahiz ongizatean emandako laguntzagatik*

Lunes, 04 de febrero de 2013

La Presidenta de Navarra, Yolanda Barcina, ha presidido este mediodía el homenaje que el Gobierno de Navarra

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Nafarroako Gobernuak 2012an erretiratu edo hil egin ziren Foru Administrazioako [603 funtzionario eta enplegatu publikoei](#) eskaini dien omenaldiaren buru izan da gaur eguerdian.



Barcina Lehendakaria erretiratutako funtzionarioei hitz batzuk esaten.

1985etik urtero egiten den ekitaldia Baluarte Nafarroako Kongresuen Jauregian eta Auditorioan egin da, eta bertan parte hartu dute Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari Javier Morrás-ek eta Funtzio Publikoko zuzendari nagusi Gregorio Eguilaz-ek.

Bere [agerraldian](#), Lehendakariak funtzionarioei eskerrak eman dizkie “egindako lan profesional miresgarriagatik” eta “etengabeko lanagatik” eta “Nafarroako erakundeei erakutsitako leialtasunagatik”; ezaugarri horiekin Foru Komunitatearen aurrerabidean eta ongizatean “modu erabakigarrian” lagundu dute.

“Gure komunitatearen jarduera sustatzeko, garapen eta aurrerabide ekonomiko nahiz sozialeko helburu berriak lortzeko, herritarren arreta hobetzeko Nafarroako Gobernuak garai honetan egindako guztia alferrikakoa izango zen bere funtzionario eta enplegatuen jardun aktibo eta eredugarririk gabe”, adierazi du.



Omenaldi-ekitaldira bertaratu diren erretiratutako funtzionarioak.

603 funtzionario eta enplegatu publikoetatik, 302 emakumezkoak dira eta 301 gizonezkoak, eta 10 hil egin dira. Omenduek intsignia bana jaso dute Foru Komunitateko ezkutuarekin eta baita diploma bat ere; azken horretan Nafarroako Gobernuak bere aitortena egiten du lanean buru-belarri aritu izanagatik eta azaldu duten profesionaltasunagatik.